

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA, ZENTSUKOA

Lehen Hezkuntzako 4. maila

2009- 2010 ikasturtea

PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

- A- Probak entregatu eta gordetzea**
- B- Ikasleak salbuetsiak izateko irizpideak**
- C- Probak betetzea**
- D- Aplikazio aldiaren prestakuntza**
- E- Aplikazioa**
- F- Probaren egunean bertan izan ez diren ikasleak**
- G- Ingeles probarako jarraibide espezifikoak**
- H- Probak aplikatzeko egutegia**
- I- Ikasleen galdetegia**
- J- Proben zuzenketa**
- K- Datuak sartu eta igortzea**
- L- Emaitzak eta txostenak lortzea**
- M- Ikasleek egindako probak gordetzea**
- N- Eskerrak ematea**

1. eranskina: salbuespenen erregistroa

2. eranskina: egutegia

Ondoko jarraibideen helburua da bermatzea probak ikastetxe guztietan era berean eta modu kontrolatuan egin, zuzendu eta erregistratzen direla.

Zuzendaritza taldeek eta ebaluazio diagnostikoan inplikaturik dauden irakasleek alde aurretik eta denboraz ezagutu beharko dituzte jarraibideak eta baita horien arabera jokatu ere.

A. Probak entregatu eta gordetzea

1. Aurreko ikasturteko prozedurari jarraituko zaio:
 - a. Lizarra, Lekarotz, Tafalla eta Tuterako ILZe atxikitako ikastetxeek beren ILZko egoitzan jasoko dituzte probak, **apirilaren 15ean eta 16an**.
 - b. ILZ horiei atxikitako ikastetxeren batek probak Iruñean jaso nahi baditu, Ebaluazio Atalari jakinaraziko dio arestian aipatutako data baino bi aste lehenago.
 - c. Iruñeko ILZri atxikitako ikastetxeek probak Hezkuntza Departamentuaren egoitzan jasoko dituzte, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuan, solairuarteetan, 8:30etik 14:30era, **apirilaren 15ean eta 16an**.
2. Probak ikastetxean daudenean, koadernoak giltzapean gordeko dira, sekretupean gera daitezen bermatzeko.
3. Zuzendariak aplikatzaileei emanen dizkiete proba bakoitzean beharko diren koadernoak, proba baino ordu bete lehenago, gehienez ere. Koadernoak paketeetan egonen dira eta proba hasterakoan irekiko dira.
4. Aplikatzaileek eta zuzentzaileek sekretupean zainduko dute proben edukia maiatzaren 21 arte. Hortik aurrera probak libre geratuko dira.

B. Ikasleak salbuetsiak izateko irizpideak

1. Proba hauek egin beharko dituzte Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek, ondoko irizpideak direla eta, probak egitea ezinezkoa duten ikasleek izan ezik:
 - a) Gaztelaniaz ez jakitea (edo, hala badagokio, euskaraz) hezkuntza sisteman orain dela gutxi hasteagatik.
 - b) Proba egitea ezinezkoa egiten duen zentzumenetako edo mugitzeko ezgaitasuna.
 - c) NHBBZren erroldan jasota dagoen ezgaitasun psikiko edo intelektuala.

Ikastetxearen esku geratuko da (zuzendaria-orientatzailea-tutorea) hezkuntza premiaren bat izanik proba egiteko erabateko ezintasuna ez duten ikasleendako egokitzapenak aurreikustea eta aplikatzea. Egokitzapen horiek izaten ahal dira denbora gehiago ematea, letraren tamaina handitzea, etab.

2. Probak egiteko eguna baino astebete lehenago, gutxienez, ikastetxeak aztertuko du ikasleren batek salbuetsia izan behar duen eta egokitzapenik egin behar den, aurreko irizpideei jarraikiz. Salbuetsia den ikasleren bat baldin badago I. eranskineko salbuespenen erregistroa beteko da.
3. Aipatutako irizpideak aplikatuta salbuetsiak geratzen diren ikasleak ikasgelan geratzen ahal dira probaren egunean eta baitan proba "egin" ere; kasu honetan lortzen dituzten emaitzak bere testuinguruan jarriko dira eta tutoreak erabiltzen ahalko ditu. Ikastetxeak jasota uzten badu ikaslea salbuetsia dagoela, ikastetxeak ez du emaitza kontuan hartuko.

C. Probak betetzea

1. Probak boligrafoz beteko dira, lehenetasunez.
2. Lehen Hezkuntzako 4. mailan, **ezingo da** kalkulagailurik erabili.
3. Zirriborro papera. Matematikako gaitasunaren proban ikasleek orri zuriak erabiltzen ahal dituzte eragiketarak egiteko, baina beren oharrak ebaluazio koadernoan jaso beharko dituzte galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamendua eskatzen direnean. Ingeles proban ikasleek zirriborro papera erabiltzen ahalko dute Listening probako lehenengo zatian oharrak egiteko (audio grabazio bat entzutea).

D. Aplikazio aldiaren prestakuntza

1. Ikastetxeko zuzendariak protokolo hau aldeztu aurretik eta denboraz jarriko du aplikatzaileen esku jakinaren gainean egon daitezen eta behar bezala aplikatu dezaten bermatzeko.
2. Salbuespenen erregistroa beteko da.
3. Tutoreek ikasleei lana jarriko diete, proba bukatzen doazen heinean lanean jarraitu dezaten ikaskideei trazarik egin gabe.
4. Ikastetxeek egoki deriztzen informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte onarpen eta lan giro arrunta eta lasaia lortzeko.

E. Aplikazioa

1. Probaren aplikatzaile gisa aritzen ahalko da ikastetxeko edozein irakasle, ez badu ematen une horretan ebaluatu behar den irakasgai bera.
2. Aplikazioa egiten den bitartean ez da beste irakaslerik sartuko, baina gomendarria litazke zaintzan dagoen irakaslea hurbil egotea gertaera bereziren bat izan baitaiteke (ikasleren batek ondoezik egotea...)
3. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die proba oso garrantzitsua dela, Nafarroako ikasle guztiak egiten ari direla, ahal den hoberen egiten saiatu behar dutela, **horren emaitza tutoreak gurasoei emanen diela ekainean**. Sentsibilizazio lan hau oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko.

4. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon beharko dutela proba bukatu arte, lehenago bukatzen badute tutoreak proposatuko lanak egin beharko dituztela, ikaskideei trabarik egin gabe. Aplikatzaileak ikasleek egin beharreko lana ezagutuko du eta horren betetzea begiratuko du.
5. Aplikatzaileak taldeko ikasle guztien zerrenda izanen du, baita salbuetsitako ikasleen zerrenda ere. Zerrenda irakurriko du, falta direnak jasoko ditu eta salbuetsia den ikasleren batek proba egingen balu E letra idatziko luke koadernoan proba amaitzerakoan.
6. *Ziurtatuko du ikasleen mahaiak elkarrengandik aski urrun egotea, ikasleek banaka lan egin ahal izateko..*
7. Dena antolatuta dagoenean, koadernoan paketea ireki eta banatu egingen ditu. Ikasleei koadernoaren azala bete dezatela adierazi ondoren, probaren jarraibideak irakurri eta galdera irekien eta itxien berri emanen du, azken hauetan ikasleak erantzun bat aukeratu behar du (A, B, C edo D). Oroitaraziko du galdera irekietan erantzuna idatzi behar dutela galderen ondoren dagoen tartean eta ez dezatela ahaztu urratsak jartzea matematikako gaitasunaren ariketetan.
8. Ikasleen zalantzak argituko ditu, adiraziko du bakarrik egin behar dutela lan eta ulertzen ez duten zerbait egonez gero, berriro irakurri dezatela eta hurrengo galderara igaro daitezela. Ikasleek probaren edozein unetan berriro aztertzen ahal dituzte aurreko galderak.
9. Zalantzak argitu ondoren, arbelan idatziko du proba hasi eta bukatzeko ordua. Proba egiteko 60 minutu egonen dira eta denbora errealtzat joko da:

“Proba egiteko denbora hemendik aurrera hasiko da neurtzen.”

10. Proba hasi ondoren, aplikatzaileak ez du inolako azalpenik edo erantzun berririk emanen, kontsultarik egotekotan ondoko gomendioa emanen du: galdera berriro irakurri edo hurrengora pasa.
11. Proba bukatzeko 10 minutu falta direnean ikasleei jakinaraziko zaie.
12. Denbora bukatutakoan aplikatzaileak koaderno guztiak jasoko ditu, (soberan daudenak eta bete egin direnak) eta ikastetxearen jarraibideei men egingen die, probak zuzentzeko eta bertan izan ez ziren ikasleen errekupeziarako.
13. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak proben aplikazio aldiaren kalitate kontrola egingen du ikastetxeen ausazko lagin batean.

F. Probaren egunean bertan izan ez diren ikasleak

1. Ebaluazio hau egin behar dute Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek, proben egunean bertaratu ez diren ikasleek lehenbailehen egin beharko dituzte probak, ikastetxe bakoitzak aurreikusitako planarekin bat.
2. Emaitzak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira (ikastetxe publikoetan) edo Excel datu basean (ikastetxe itunduetan) aurrerago adierazten diren epeetan.

G. Ingeles probarako jarraibide espezifikoak (English Literacy)

Aurreko jarraibideez gain, ondokoak aplikatuko dira:

1. Aplikatzaileak ziurtatuko du, **gutxienez 48 ordu lehenago**, audio irakurgailua eta CDa ongi dabiltzala: *ikasgelako toki guztietan ongi entzutea, entzunaldia hiru aldiz grabatuta egotea, eta entzunaldien artean minutu bateko etenaldia, gutxi gora behera.*
2. Aplikatzaileak azalpen guztiak emanen ditu ikasgelako komunikazio hizkuntzan; hau da, gaztelaniaz G eta A eredueta ikasleei eta euskaraz D eredueta ikasleei.
3. Koadernoaren azalean eskatzen diren atalak bete ondoren, aplikatzaileak ikasleei azalduko die probak hiru atal dituela:
 - a) *LISTENING*: hiru aldiz entzunen da minutu eta erdiko CD bat ingelesez; ondoren, entzundakoaren gaineko 7 galdera erantzun beharko dira.
 - b) *READING*: ingelesezko bi testu irakurriko dituzte; ondoren, horiei buruzko galderak erantzun beharko dituzte.
 - c) *WRITING*: ingelesezko testu bat idatziko dute, koadernoaren atal horretako jarraibideekin bat.
4. Ondoren, ikasleei azalduko zaie LISTENINGa egiteko modua:
 - a) Hasiera batez 3 minutuz irakurriko dituzte koadernoko 7 lehenengo galderak, aldeztatik jakin dezaten zer erantzun behar duten.
 - b) Ondoren 3 aldiz adituko dute ingelesezko entzunaldia.
 - c) Entzunaldien artean 2 minutuko tarteak daude. Bi tarteen artean galderak erantzuten ahal dituzte, horrela hurrengo entzunaldian ulertu ez dutenari arreta jartzeko.
 - d) Entzunaldietan oharrak jasotzen ahal dituzte zirriborro orrialde batean.
 - e) Hirugarren entzunaldiaren ondoren ikasle bakoitzak badakizkien galderak erantzungo ditu eta probarekin jarraituko du bere erritmoan.

LISTENINGa egiteko jardueren eta denboren taula		
Lehenengo 7 galderak irakurtzea	3 minutu	<i>Kontrolatu behar da</i>
Audioaren lehenengo entzunaldia	1,5 minutu	<i>CDak automatikoki egiten du abian jarri ostean</i>
Lehenengo tarteak	2 minutu	
Audioaren bigarren entzunaldia	1,5 minutu	
Bigarren tarteak	2 minutu	
Audioaren hirugarren entzunaldia	1,5 minutu	

Aplikatzaileak galdetuko du zalantzarik dagoen ondoko gainean: proba bera, probaren atalak, egin behar dutenaren inguruan, etab. Zalantza horiek argituko ditu, gauzak errepikatuz ikasle guztiendako dena argi geratu arte.

5. Zalantzak argitu eta gero: arbelean idatziko du proba noiz hasi eta noiz bukatuko den, kontuan izanda koadernoan jasotzen den proba egiteko denbora, eta **proba hasiko da**:

Esanen die lehenengo 7 galderak irakurtzeko 3 minutuz (erlojuarekin kontrolatuko du denbora tarte hori), eta denbora igarota martxan jarriko du audio entzungailua.
6. Ariketa bukatzeko hogei minutu falta direnean horren berri emanen die eta idazketa ariketa egiten hasteko gogoraraziko die (WRITING), hori egiten hasi ez badira behintzat

H. Probak aplikatzeko egutegia:

Probak hasiko dira goizaldearen hasieran, **maiatzaren 4an eta 5ean**, ondoko egutegiari jarraikiz:

	Asteartea, maiatzak 4	Asteazkena, maiatzak 5
G/A eredia	Goizeko lehen orduan: Matematikako gaitasuna Denbora erreala: 60 minutu	Goizeko lehen orduan: English Literacy Denbora erreala: 60 minutu
	Atsedena	Atsedena
	Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz Denbora erreala: 60 minutu	
B/D eredia	Goizeko lehen orduan: Matematikako gaitasuna Denbora erreala: 60 minutu	Goizeko lehen orduan: English Literacy Denbora erreala: 60 minutu
	Atsedena	Atsedena
	Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz Denbora erreala: 60 minutu	Irakurtzeko gaitasuna euskaraz Denbora erreala: 60 minutu

I. Ikasleen galdetegia

1. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleendako galdetegia prestatu da. Errendimendu proben antzeko formatua dauka.
2. Galdetegia anonimoa da. Ikastetxe bakoitzeko koadernoak ausaz banatzen ahal dira. Lortutako datuek ikastetxeko ezaugarri orokorrak ezagutzea ahalbidetzen dute, soilik, ikaskuntza-irakaskuntza prozesurako eta hezkuntza zerbitzua emateko interesgarri jotzen direnak.
3. Aplikazioa eginen da ikastetxeak zehaztuko duen egunean, kontuan izanik koadernoak igorri behar direla Ebaluazio Atalera 2010eko ekaina bukatu baino lehen. Lehenago aplikatzen ahal dira, ebaluazio diagnostikoaren astean edo ondoren.
4. Ikastetxeak zehaztuko du aplikaziorako metodologia; kontuan hartuko da ikasleek azalpenak eskatuko dituztela modu egokian erantzun ahal izateko; hori dela eta, proposatzen da tutoreak egin dezala galdetegiaren aplikazioa.
5. Tutoreek zainduko dute item guztiak bete direla eta ziurtatuko dute informazioaren erreserba.
6. Aplikaziorako aurreikusten den denbora 30 minutukoa da, baina bere iraupena taldearen beharrei egokituko zaie.

7. Ikastetxeak **batera igorriko ditu** galdetegi guztiak. Igorketa postaz egiten ahal da, edo eskura eman Ebaluazio Atalean. Paketean edo gutun azalean zenbat galdetegi diren adieraziko da.
8. Galdetegiko datuen grabaketa kanpoan egingen da, Ebaluazio Atalaren kontrolpean.
9. Lortutako informazioa ikastetxe bakoitzari emanen zaio ebaluazio diagnostiko zentsalaren txosten orokorrean, 2010-11 ikasturtearen hasieran, eta ahalbidetuko du batez besteko emaitzak aldagai soziokulturalen testuinguruan jartzea.

J. Proben zuzenketa

1. Ondokoak dira zuzenketa egingen duten irakasleak:

Probak	Zuzentzaileak
Irakurtzeko gaitasuna	Taldearen tutorea edo ikastetxeko beste irakasle bat
Matematikako gaitasuna	
Ingeles gaitasuna	Ingeles espezialista

2. Proba bakoitzak zuzenketarako koaderno bat dauka, galdera irekiak zuzentzeko irizpideak zehazten dituena. Koaderno hauek zuzendariaren eskura egonen dira probak egiteko egun berean, ondoko webgunean:

<http://www.educacion.navarra.es/portal/Informazio+interesgarria/Ebaluazioa/Nafarroako+Ebaluazioak/Haur+Hezkuntza+eta+LH>

Koadernoak webgune horretatik pasahitz batekin jaso ahalko dira. Pasahitz hori zuzendariari garaiz jakinaraziko zaio.

Galdera itxiek ez dute zuzenketa prozesuaren beharrik, aplikazio informatiko batez egiten baita.

Galdera irekietan dagokion puntuazio/kodea jarriko da (0, 1, 2...), ikaslearen erantzuna zuzenketa irizpidearekin alderatu ondoren. Puntuazio/kode hori zuzentzaileak idatziko du ikaslearen koadernoan.

3. Epeak. Zuzenketa lehenbailehen egin behar da. Gomendatutako azken eguna **maiatzaren 14a** da.

K. Datuak sartu eta igortzea

1. Zuzendutako koadernoetan agertzen diren erantzun markatuak (A, B, C, D) eta 0, 1, 2... zuzenketa kodeak jarriko dira dagokien laukietan, ondoko moduan:
 - a) Ikastetxe publikoek erabiliko dute EDUCA aplikazioa horretarako prestatutako atalean. (Baita EDUCA sisteman sartu diren ikastetxe itunduek ere).

- b) Ikastetxe itunduek Excel orria erabiliko dute, webgunean beraien eskura dagoena. Kode propioak erabiltzen ahalko dituzte ikasleen izenen ordez. Orria bete eta gero posta elektronikoz igorriko dute Ebaluazio Atalera: evaleduc@navarra.es
2. Errendimendu proben datuak sartzeari **maiatzaren 14tik 21era** egingen da. Epe horretan sortzen diren zalantzak kontsultatzen ahal dira Ebaluazio Atalaren posta elektronikoa bidez eta ondoko telefonoetan: 848 426598 eta 848 426554
 3. Salbuetsitako ikasleak identifikatuak geratuko dira aipatu erregistroetan "salbuetsia" zutabearen dagokion laukian marka eginez. Datu horiek ez dira kontuan hartuko ikastetxearen estatistiken kalkuluan.
 4. Epeak betetzea duen garrantzia dela eta, ikastetxearen zuzendariari eskatu zaio zaindu dezala aipatutako aldiak eta epeak betetzea. Ebaluazioa jarraibideekin bat egiteak ahalbidetzen dio Ebaluazio Atalari bere garapena gainbegiratzea eta hobeki erantzutea ikastetxeen kontsultei.

L. Emaitzak eta txostenak lortzea

1. **Maiatzaren 28tik** aurrera ikastetxeek beren ikasleen datuak jasoko dituzte. Ikastetxe publikoek emaitza horiek jasoko dituzte EDUCA aplikazio informatikoaren bidez eta ikastetxe itunduek posta elektronikoz Excel orrian.
Ondokoak dira ikastetxeek jasoko dituzten emaitzak: ikasle bakoitzari esleitutako mailak irakurtzeko gaitasunean, matematikako gaitasunean eta ingeles gaitasunean.
2. Ondoko gaitasun mailak aurreikusi dira, gutxiagotik gehiagora:
 - 1.maila: *gai da ebazteko ebaluatutako gaitasunaren oinarritzko lanak eta problemak, eta zailtasunak ditu arrakastaz burutzeko egiten ari den ziklo edo ikasturteko oinarritzko lanak eta problemak.*
 - 2. maila: *gai da ebazteko ebaluatutako gaitasunaren oinarritzko lanak eta problemak, eta egiten ari den ziklo edo ikasturteko oinarritzko lan eta problema batzuk ere ebazten ditu.*
 - 3. maila: *ikaslea ongi moldatzen da planteatutako lan eta problemekin, eta erakutsi du ziklo edo ikasturte honen berezko gaitasuna lortu duela.*
 - 3+ maila: *ikasleak ziklo edo ikasturte honen berezko gaitasuna lortu du, eta ongi ebatzi ditu probaren item gehienak, zailenak barne.*

Mailak progresiboak dira, eta ikasleak menperatzen ditu bere mailako lanez gain beheko mailakoak.

3. Ikaslearen txostena prestatzea:

- a) Ikastetxe publikoetan tutoreek lortutako dituzte beren ikasleen emaitzak EDUCA aplikazioaren bidez, txosten-aurreko formatoan, txosten honek hiru zati ditu: goiburua identifikazio datuekin, gaitasun bakoitzean lortutako mailaren gaineko informazioa eta tutoreak idatzi nahi dituen oharretarako gordetzen den tartea.

- b) Ikastetxe itunduetan, Excel orrian itzultzen den informaziotik abiatuta, txostenak eginen dira, ondoko helbidean lortzen ahal den eredu ofizialari jarraiki:

<http://www.educacion.navarra.es/portal/Informazio+interesgarria/Ebaluazioa/Nafarroako+Ebaluazioak/Haur+Hezkuntza+eta+LH>

- c) Txostenen helburua da ikasle bakoitzaren hobekuntza neurriak zehaztea. Txosten horiek familiei banatuko zaizkie ekaineko tutoretzaren harira.

4. Txosten orokorra:

2010-11 ikasturteko lehenengo hiruhilekoaren hasieran ikastetxeek jasoko dute txosten orokor bat beren ikasleen errendimenduaren emaitzekin eta ezaugarri soziokulturalen batez bestekoarekin, Nafarroako ikasleen emaitzekin alderatuta.

Informazio hau, ikastetxearen testuinguruan jarrita Eskola Kontseiluan aurkeztuko da, ondorioetatik eta honen azterketatik eratorritako hobekuntza ildoekin.

M. Ikasleek egindako probak gordetzea

Ikasleek betetako ebaluazio koadernoak ikastetxean geratuko dira 2010eko azaroaren 30a arte, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku jarriko dira, gerta bataiteke zuzenketa irizpideen baliozkotasuna egiaztatu behar izatea, eta irizpide horiek modu homogeneoan jarraitu diren ikustea.

N. Eskerrak ematea


Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egindako lana eskertu nahi die ikastetxeetako zuzendarie, tutoreei, irakasleei, orientatzaileei, zerbitzuetako langileei, ikasleei eta gurasoei.

1. ERANSKINA

Ikastetxea:

2010

Salbuespenen erregistroa		
Taldea	Izen-abizenak	Arrazoa (A, B, C)
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		

- a) Gaztelaniaz ez jakitea (edo, hala badagokio, euskaraz) hezkuntza sisteman orain dela gutxi hasteagatik.
 - b) Proba egitea ezinezkoa egiten duen zentzumenetako edo mugitzeko ezgaitasuna.
 - c) NHBBZren erroldan jasota dagoen ezgaitasun psikiko edo intelektuala
- 

Erregistro hau ikastetxean geratuko da.

Jarduera garrantzitsuenen egutegia

APIRILA				
A	A	A	O	O
			1	2
5	6	7	8	9
12	13	14	15 Probak	16 jasotzea
19	20	21	22	23
26 Salbuespena	27	28	29	30 CDa frogatzea

MAIATZA				
A	A	A	O	O
3	4 Aplikazioa	5 Aplikazioa	6	7
10	11	12	13	14 Zuzenketaren amaiera
17	18	19	20	21 Grabaketaren amaiera
24/31	25	26	27	28 Txostenak lortzea